

DEFINIZIOAK

UR KONTSUMOAREN ESTADISTIKA (090215)

Hiriko ur-hornidura (hiriko hornidura-sistemetan hornitutako uraren kontsumoa)

Hiriko hornidura-sistemen bidez azken kontsumitzaileei hornitzen zaien uraren bolumena, m³-tan neurtuta. Erakunde hornitzaileek kudeatzen dituzte.

Ura hornitzeko iturri propioak (erakunde hornitzaileak ez diren beste titular batzuen aprobetxamenduetako uraren kontsumoa)

Azken kontsumitzaileek zuzenean kontsumitzeko kendutako uraren bolumena, m³-tan neurtuta. Horniduren iturri propioak administrazioaren emakida edo baimena behar duten ur-aprobetxamenduak dira (gainazalekoak nahiz lurpekoak).

Ura etxerako erabiltzea

Ura etxerako erabiltzen dela ulertzen da egoitza-jardueren ondorioz etxean egiten diren ur-kontsumoez ari garenean.

Industria-erabilera

Hiriko hornidura-sistemen bidez hornitutako uraren kasuan, erakunde hornitzaileak industria-jarduerarako tarifa bat aplikatzen duen uraren kontsumoa industria-erabilerakoa dela ulertzen da.

Iturri propioetatik hornitutako uraren kasuan, industria-erabilerakoa dela ulertuko da 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako (JESN-2009) 05 eta 33 banaketan artean (biak barne) dauden jardueren ondorioz kontsumitutako urari buruz ari garenean.

Merkataritza-erabilera

Erakunde hornitzaileak merkataritza-jardueretarako tarifa aplikatzen duenean, uraren kontsumoak merkataritza-erabilera duela ulertzen da.

Erabilera publikoa (erakunde hornitzaileen kontsumo propioa eta doako hornidurak barne)

Erabilera publikoa da zerbitzu publikoetarako bideratzen den uraren kontsumoa, besteak beste kaleak garbitzeko, iturrietarako, kirol-instalazio publikoetarako eta abar.

Erakunde hornitzaileen eta doako horniduren kontsumoen bolumenak ere atal honetan sartzen dira, gehien-gehienak erabilera publikorako baitira.

Beste erabilera batzuk

Beste erabilera batzuk direla ulertuko da 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko (JESN-2009) 36 eta 96 banaketen artean (biak barne) dauden jardueren ondorioz kontsumitutako urari buruz ari garenean.

Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera

Erakunde hornitzaileak nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako tarifa aplikatzen duenean, uraren kontsumoak nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera duela ulertzen da.

Galerekin lotutako bolumena

Ingurunetik bideratutako ur-bolumenaren eta kontsumitutako bolumenen baturaren arteko aldea, m³-tan neurtuta. Kontzeptu honetan sartzen dira azpi-zenbaketa, neurtu gabeko kontsumoak, iruzurrezko kontsumoak, sareetako ihesak eta sarearen eraginkortasunik ezak.

Kontsumo propioaren bolumena

Hornidura-sistema kudeatzen duen erakundeak berak kontsumitutako uraren bolumena, m³-tan neurtuta. Erakunde hornitzailea udala denean, erabilera publikoaren parekoa da.

Doan hornitutako bolumena

Erakunde hornitzaileek doan, hau da, kontraprestazio ekonomikorik gabe hornitzen duten ur-bolumena, m³-tan neurtuta.